


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko abenduak 4 / II. urtea / 53. zenbakia

Kultura, eskale eta behartsu



Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen murrizketak gogor ukitu du kultura. Diru «nahikoa» ezertarako ez dagoela diote diputazioan, baina azken egunotan Nafarroako Antzerki Eskola (NAE), eta musika kontserbatorioak haserre eta kezkatu agertu dira Javier Markotegi Kultur Kontseilariaren adierazpenen aurrean. Yauzkari taldearen desagerpenak ere zalantza franko zabaldu zituen kultur politikari buruz, eta Maite Pascual NAEko burua, Javier Lainez Yauzkarikoa eta Mikel Esparza Barañaingo kontserbatorioko zuzendaria bildu ditugu mahainguruan, gaiaren gertuko ikuspundua jasotzeko.

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Gaueko ordu txikiak dira eta 'Larrea' tabernan gizon sail polita ari da santa Agedaren festa algara bizian ospatzen. Usuario zaharrari jarraikiz, zutik diraute barra ondoan, koplak eta kopak bata bestearen ondotik jausten diren bitartean. «Eztarriz ondo gabiltza/ ta kanta nahi dugu gogoz...» Oparo afaldu dute aurretik, eta edan ere bai. Etxeratxeko goiz da oraindik, pa-

rrandarako une onenak horietxek baitira: ordu txikiak. Halako batean, parrokiaren begi lausotuek Aureliano mahaia seinatu dute eta, behin edo bestetan egin ohi bezala, parre batzuk egingo dituzte beraiek bezain mozkortuta dagoen gizajoaren bizkarrean.

Ardi mozketako guraiziez hilela moztu dute inarraisika, eta behera zapla erori arte beroak eman. Praxak eta galtzontziloak erantzi dizkiote, eta hatz erakuslearen alderdietara luzatuz, iseka egiten dute ozenki. Bezeroak olgetan ari diren artean, «Santa Ageda bezpera dugu/ Euskalerriko eguna», justu-justu erdi zutitu eta ihes joan nahi du basozainak baina, huts irten zaio, erasotzaileetako batek zangartekoa egin eta lurrera berriro erortzen delako. Orduan, makilaz eta hauspoz kolpatzen dute, ostiko eta ukabilkadak ere erruz

direla. «Ez gaude oso aberats diruz/ ezta ere oinetakoz»... Krask bat senditu du buru-kaskoan, suburdin batek edo eraginik. Hiltzeaz dago Aureliano eta ezingo dio halabeharrari aurre egin... Egia omen.

Hamaika dira A. Letonaren ustezko hiltzaileak, oraindik-orain, Bilboko Hauztegian akusatuen eserlekuan ikusi ahal izan ditugunez. Baina, era berean, basozainaren hiltzaile 'hamaika' dela ere esan dezakegu. Hildakoa, 'gizajo' bat zen; ustezko hiltzaileak herriko 'jatorrak', ordea. Ondorio zuzena: isileko legearen ezarpena. Hasi, orain dela hamaika urte pasatxo hilketa lekuan begirale egon zirenengandik, segi akustau eta berauen familiar eta lagunengandik, eta bukatuz herriko udalbatzarekin berarekin, guziek nolabaiteko konplizitatea mantendu dute akusatuen eta herriaren izen ona inork zikindu ez dezan. Hala ere, eta beste hainbatetan gertatu den gisara,

hola jokatu dutenak nahiko oker ibili dira, isileko legearen zama astuna ezin eramanez, goiz zein berandu, amnesikoren bat agertzen baita eszenatokian, bare zegoena zaratatsu bihurtuz. Eta lasai egon daitezela Orozkotarrak. Haiek ez dira bakarrak ekintza laidogarri bat isilaz estaltzeko ahaleginetan; herri guzien historian irudiko portaerak asko direlako. Beldurra eta solidaritate faltua dela medio, ez dago herririk gaitz horretatik libratzen denik; guziok badugu zertaz lo-tsatu!

Hamaika urte daramatzate Orozkon santa Agedaren festa ospatu gabe eta, bada garaia, usario zaharrak eskatzen duen bezala, kalez-kale eta tabernaz-taberna berriz kantuz ibiltzen aritzeko. Ea oraingoan, «Etxe honetan zorion hutsa/ betiko izango al da-be»...

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Pedro Salaberri pintorearen lanak erakusketa ikusgai dago Zizur Nagusiko Kultur Etxean, abenduaren 20a arte. Erakustaldi hau azaroa eta abendurako antolatutako ekitaldien artean dago, antzerkia eta musikarekin batera.

M^a Jose Aiestaran artistaren lanak ikusgai daude Tafallako Kultur Etxearen erakusketa aretoan, datorren abenduaren 13a arte. Beste ekintza kulturalen moduan, bertako Patronatoak antolatutako erakustaldi hau.

Jose Antonio Legorburu pintorearen lanak erakusketa zabalik dago Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxean, datorren abenduaren 12a arte. Zarautzen jaioetako artista honen lanak Lizarran eta Tafallatik pasa ondoren Erriberako hiriburura ailegatu dira, eta aurtengo bira bukatu.

Ana M^a Sanz Tineo pintorearen lanak ikusgai daude, gaurtik hasita eta datorren abenduaren 20a arte, Lan Kide Aurrezkiak Iruñeko Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Erakusketa ikusteko orduak hauek dira: lanegunetan, 18.30etatik 20.30era eta jaiegunetan 12etatik 14.00etara.

IKASTAROAK



Ipar eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, La-

ANTZERKIA



'Academia Palanca' izeneko antzezlanak ikusgai egonen da as-

Asteburu luze honetan Euskal Herriko tontor nagusia egiteko aprobetxatuko dugu. Zurizarako (Huesca) bidea hartuz, han dauden lau haran txikien artean, Linza izeneko txokora abiatuko gara. Bertan nahiko aterbe berria dugu, eta hori ziango da gure abiapuntua.

Mendebaldeko norabidea hartuz, senda txiki batetik Inzako iturriraino helduko gara. Lautada txiki bat da, erreka batekin. Punturik egokiena hamaiketakoak jateko. Ipar-mendebaldeko inguratuz, Linza lepoa agertuko zaigu. Kontutan hartu behar da Linza lepoa lehendabiziko aldapa dela, izugarritzakoa, 1.936 metroan jarriko baikara.

Hemendik Iparraldeko norabidea jarraituz eta Hoya de la Solan sartu gabe, Budogiaren maldak ikusi ahalko ditugu. Malda artean Budogiak duen haran txiki bat azaltzen zaigu. Txikia ezezik, aldapsua ere bada. Haran honek

rraungo udalak antolatutako. Orduetara 9,30etatik 13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskolakoentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialekin 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.



Esquiste leporaino igoko gaitu (2.114 m.). Harritzko bidea hartuz, tontorra irabaziko dugu.

Goian, Hiri Errege Mahaia tontorrean, San Frantzisko Xa-

bierren gizairudi txiki bat eta Xabierren gaztelua, maketa modukoa, daude. Horrengatik, urtero, San Frantzisko Xabierren egunean joan ohi gara leku horretara.

teburu honetan Iruñean, Antzerki Eskolak antolatutako. Bi emanaldi izango dira, bata igandean, abenduak 6, eta bestea datorren asteartean, hilak 8, biak arratsaldeko 8etan. Eskolaren aretoan eskainiko dira, eta sarrerak 600 pezetatan salduko dituzte, gazte txartela edukiz gero 300.

duta dagoen emanaldi hau arratsaldeko 6etan izanen da, herriko udalak egun horietarako antolatutako Aste Kulturalaren ekitaldien barruan.

ZINEMA



'La noche de los cristales rotos' izeneko pelikula botako dute datorren ostegunean, abenduak 10, Tafallako Español Zinemaren aretoan, bertako Kultur Patronatoak antolatutako. Bi

'Dos, uno, ninguno' izeneko obra eskainiko du Sambu Teatro antzerki taldeak datorren asteartean, abenduak 8, Iruñerriko ludotekan. Haurrentzako zuzen-

emanaldi izango dira, bata arratsaldeko 8etan eta bestea gaueko 22.30etan. Sarrerak 175 pezetan salduko dituzte.

'La guerra de los Rose' titulua duen filma botako dute bihar, abenduak 5, Lizarrako Julian Romano musika kontserbatorioan, arratsaldeko zortzietan. 'Cinefilos anónimos' zikloaren barruan zenbait pelikula eskaintzen ari dira Lizarran, eta hau da horietako bat. Sarrerak 200 pezetatan salduko dituzte.

MUSIKA



'Su ta Gar', 'EH-Sukarra' eta 'Zernahi Bizkor' musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, abenduak 5, gaueko 21.30etan. Musika emanaldia Atarrabiako Lorenzo Goikoaren Frontoian izango da, Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako. Sarrerak 900 pezetan salduko dituzte aldez aurretik erosiz gero, eta 1.100 pezetatan takillan.

'Moho' musika taldea arituko da bihar, abenduak 5, Urantzia herrian, 'Arte eta Kultura' Nafarroako Gobernuak eta bertako udalak antolatutako zikloaren barruan. Talde hau aurtengo Pop-Rock txapelketan finalista izan zen.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIAK



Argentina bisitaldia hunkigarria izan da».

Juan Cruz Alli
Lehendakaria

«Euskara tresna politikoizatzen da, eta horrengatik irakasten da batua».

Jesus Aizpun
UPNko lehendakaria

«UPNren irudia Aznarrena da, itxura faxista duen morroi horrena».

Florez Aoz
HBko parlamentaria

«Beldurra sentitzeko astirik ere ez nuen izan».

Amaia Alcalá
Udalzaina

Jesus Reclusa



Pilota federazioko buru ohia

Nafarroako pilotak omenaldi handia egin zion joan den astean Jesus Reclusa bere presidente ohiari. Pilotariak, federaziokoak, teknikariak, denak bat etorri ziren gizon honen lana azpimarratzeko unean, eta La Brit frontoian izan zen pilota partiduen ondorengoa. Jesus Reclusak 24 urteko agintari utzi zion era honetan, eta bere agurrean pilota batzeko ahalgintetan ez etsitzeko animatu zituen bere ondorengoa. Jose Mari Salanueva izango da pilota federazioaren presidente berria.

Ignacio Ramirez



Sukaldaria

Tuterako baratza saritu du aurtengo Espainiako Gastronomiako Akademiak, eta bertako 'Casa Ignacio-ren' lana goretsi. Campsa enpresa eta kofradia batekin batera ematen diren sari hauetan urteko jatetxerik onenetakoak azaltzen dira, eta Ignacio Ramirezekin, hiru dira dagoeneko Erriberakoak. Tuterar honek duela bi urte hartu zuen jatetxearen ardura, eta urte hauetan ospe eta izen handia eman dio. Espezialitateak: barazkiak, jakina, mota eta tamaina guztietako barazkiak. 44 urtetako esperientzia baratzen mesederako. Ez da gutxi.

Alfredo Balerdi



Pilotaria

Lizarrako pilotariak debuta egin zuen pasa den asteartean profesionalean, bere etxean, eta 22-18 galdu zuen Capellan-Tolosaren aurka. Alfredo urduri aritu zen partidua osoan zehar, eta bere toki berriarekin oraindik ez zegoela guztiz ohitura nabarmendu zen, orain arte atzelari lanetan aritu baita. Balerdi pilota nafarrak eman duen urrezko belaualdiaren azken bitxia da, Eugi eta Belokiren ondorengoa, eta afizionatuaren kontrako ez bazuen ere, borrokatu beharko du profesionalean tokitxo egiteko. Tolosak ez zion utzi estrai-nean.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Lizarra

Zaborraren xarma aldarrikatzen

IRUÑEA

Zaborraren Lagunak elkarteak antolatuta, birziklapena eta honen inguruan dauden gaiak jorrazteko topaketak egingo dira Lizarran, gaur hasi eta asteazkena bitartean. Elkarrekin honetan Estatu osoko 38 talde biltzen dira, eta 1985ean lehendabiziko topaketak egin zirenetik, urtetik urtera toki batean egin dituzte. Aurten Lizarra aukeratzeko orduan kontuan hartu zituzten, prentsaurrekoan azaldu zuten, birziklapenaren inguruan gure lurraldean egiten ari diren proiektu guztiak.

Elkarteak gizartea eta administrazioaren sentsibilizazioa du helburu, baita gure hirietan hazten ari den kontsumoa orekatuago eta arduratsua lortzea ere. Jardunaldi hauetara 200 pertsona inguru azalduko direla adierazi zuten antolatzaileek Iruñean eman zuten prentsaurrekoan, eta hainbat lurralde autonomoren arteko elkarlana bultzatu beharra azpimarratu zuten.

Topaketekin batera, talde hauek administrazio guztiei eman beharreko galdetegi moduko txostena prestatu dute, eta bertan hondakin solidoak, etxeetako zaborrak, hondakin toxikoak, zabortegiak, eta abarri buruzko galderak egiten zaizkie.

Jardunaldi hauetara 200 pertsona inguru azalduko dira, eta antolatzaileek gai honetan lurralde autonomoen arteko elkarlana bultzatu beharra azpimarratu zuten.

TALDE EKOLOGISTA GUZTIAK

Jardunaldiak ANAT-LANE, Lizarreriko Asanblada Ekologista, EKI, Gorosti, Emausko Traperoak, CAME Iruñeko talde ekologista, Sagarrak eta Eguzki taldeek antolatuta dute, eta Jurrandikoko Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuak, Lizarrako Udalak, Tetra Pack enpresak eta Espainiako Herrilan eta Garraio Ministerioak lagunduta daude.

Mintzaldiak eta txostenen aurkezpenarekin batera, birziklapen zentrori bisitaldiak, erakusketak, antzerkiak eta Arangurengo bizilagunekin elkarriketak izango dira, eta astelehenean edukiontzi eta fardelei buruz atera nahi den legeri buruz beren irudia azalduko dute mahainguruan.



Zaborraren birziklapenean Nafarroan egindako proiektuak direla eta aukeratu dute Lizarra. JOXE LACALLE

Tutera


Irratizaleen kongresua

TUTERA

Asteburu honetan egingo dute Tuteran, Castel Ruiz kultur zentroak antolatuta, Estatu espainol osoko irratizaleak bilduko dituen kongresua. Antolatzaileek prentsaurrekoan azaldu zuten, 500 bat partaide espero dira bertan eta mintzaldiak, txostenak eta ekin-tza franko izango dira arratsaldeko 6ak eta 8ak bitartean.

Kongresuaren oinarria eta gai nagusia komunikazio digitalak eta sateliteen ingurukoak izango da eta hiru egunetan zehar Castel Ruizen egoitzan beran, sateliteekin-konektatutako zenbait estazio izanen dira martxan, horren jarraimendua egin ahal izateko. Halaber, bitxikeria gisa, Japoniako irratizale batekin harremana ordenagailu bidez egingo da, eta Ingalaterrako eskola batekin ere satelite bidez hitz egingo dute.

Kongresua, berez, adituendako dago prestatuta, baina esperientziarik gabekoek ere bertara azaltzeko aukera izango dute. Gogoratu behar da Nafarroan irratizaleen kopururik altuena-takoak daudela eta Tuterak, aurretik, Nafarroako hiru kongresu antolatu izan ditu. Bertako Udalak 150.000 pezetako dirulaguntza eman du horretarako.



Gure lurraldean irratizale kopuru handia dago.

CARLOS VILLAGRAN



BURLATAko Udalak 52 etxebizitza publiko berrien banaketa erabaki du aste honetan. Banaketa horren arabera, Udalaren etxebizitza berriak lortu dituztenen % 70 gazteak dira, 30 urtetik beherakoak hain zuzen ere.

BAZTANgo Udalak arrazakeria eta Atzerritarrentzako Legea salatzea erabaki du. Azken hilabeteotan gorantz egin duten arrazakeria eta faxismo mugimenduen kontra Baztanen elkartasunak nagusi izan behar duela iritzi dio Udalak, eta gainera Atzerritarrentzako Legea kontrolaren legea dela salatu du. EA, HB eta PSN-PSOEek proposamenaren alde bozkatu zuten, PSOEko zinegotziak Atzerritarrentzako Legearen kontra ez dagoela argitu bazuen ere.

AZKOIENgo pilota eskolak antolatutako eskuz binakako txapelketan gaztetxoek osatutako 23 bikoteek parte hartu dute. Eskola Vicente Lacalle pilotari ohiak eratu zuen duela hiru urte. Lacalle hamar gaztetxoekin hasi zen lanean eta egun 50 dira astero berarekin entrenatzen aritzen direnak.



LIZARRAko Sofia Erregina ospitaleak emakumeak alde batera utzi eta lau gizon kontratatu zituen bertako zaintzaile izateko, emakume batek lanpostua lortzeko lehiaketan puntuaziorik onena lortu bazuen ere. Kaltetutako emakumeak diskriminazioa salatu zuenean kontratua egin zioten, baina gainontzeko lau gizonak kaleratu gabe. Zuzendari-tzak azaldukoaren arabera «zaintzaile lanpostua ez da emakumeentzat aproposa». Diskriminazio hau dela eta, ospitaleak oraindik zehaztu gabe dagoen isuna ordaindu beharko du.

BERAko Udalak Nafarroako Diputazioak Euskararen Legea ez duela betetzen uste du, eta horixe Osasunbideko zuzendariari jakinaraztea erabaki du. Langileen kontratazioan euskara ez dela kontuan hartzen iritzi dio Udalak, eta aldi berean hori euskaldunen kalterako dela. Nafarroako Diputazioak aurten Beran lan egingeko kontratatu dituen bi pertsonak ez dira euskaldun, eta horixe Diputazioaren jarreraren adierazle da Udalaren ustez. Horrezaz gain, frankotan kexatu da Udala Bera izenaren erabileraz, oraindik ere, toki askotan, 'Vera de Bidasoa' azaltzen baita.



JOXE LACALLE

Antzerkiak, musikak eta dantzak protestak eragin dituzte egunotan Nafarroan, Gobernuaren kultur politika dela eta. Ez da gaurko ihintza, luzetik datorren eztabaida eta kezka baizik. Agintariekin ekonomi krisia eta murrizketak ai-

patzen dituzte, baina kultur bultzatzaileek kultur politikarik eza salatzen dute. Kezka honi buruz Jose Lainez Yauzkarikoa, Maite Pascual Antzerki Eskolakoa eta Miguel Esparza Barañaingo kontserbatorikoa bildu ditugu mahainguruan.

Kultur kezka

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

GALDERA.— Nafarroako Eskola—Dantza, kontserbatorioak, Antzerkia— eta taldeen —Yauzkarri, antzerki taldeak— egoera parekatu daitekeela uste duzue, edo arazo eta ezaugarriak desberdinak dituzte?

JOSE LAINEZ.— Nik uste dut musikak, dantzak eta antzerkiak beti lotuta egon behar dutela, ikuskitzetan, askotan, dena sartzen baita. Horregatik, komunikazioa behar dugu denon artean.

MAITE PASCUAL.— Nire ustez, bai, dena lotuta dago. Ez dakit politikoki, nahita, kulturaren kontra egin duten, hori oso gogorra litzateke, baina dena lotuta dago kultur politikarekin. Arazo nagusia hori da, ez dagoela. Plangintza bat behar da, kultura sortu eta zabaltzeko. Sortzeko orduan, azpiegitura behar da, hortik aterako baitira kultura egingo dutenak. Eta politikak agintariengandik sortu behar du, baina gizarteak ere eskatu behar du. Prozesu hori ez dago egun. Eskola bat sortzen da, gero ikuskitzen bat paratzen dute, ondoren, ez dakit nori bururatzen zaio talde hori ekaritzeara... Ez dago plangintzarik.

MIGUEL ESPARZA.— Kultur politika honen inguruan azpimarratu beharko litzateke politikariaren papera. Nire ustez, ez da bere eginberrak kultur politika burutzea. Berak burutu behar du gizarteak eskatzen duena, eta horretarako horretan ari direnekin hitz egin behar du. Politikariei esan behar zaie haiek ez daudela proiektuak burutzeko, jendearekin entzun eta horien nahiak burutzen saiatzeko baizik.

LAINEZ.— Jakina, politikoei, lehendabizi, kulturaren munduan daudenekin hitz egin beharko lukete, informazioa hartu eta egoera ezagutzeko.

GALDERA.— Eta zer moduzko dialogoa izan da edo dago gaur egun?

PASCUAL.— Gure kasuan, NET Kultura Sailaren barruan dago, eta hezkuntzari buruzko gaiez ez digute sekulan ezer galdetu. Ez gara existitzen.

LAINEZ.— Dantza Eskolaren kasuan, oso bestelakoa da, eta oso ongi gabilta. LOGSE legeak hasterakoan harrapatu gaitu, eta egokitzeak aukera izan dugu.

GALDERA.— Kultura bultzatzeko orduan zer eginkizun bete behar dute talde profesionalek?

LAINEZ.— Yauzkariren kasuan, sekulan ez digute kontsultatu, eta beti joan behar izan dugu eskatzera, ez jasotzera. Antzerki taldeekin antzeko zerbait gertatzen da, eta horrek mintzen gaitu artistak.

PASCUAL.— Kultura, nere ustez, oso talde txiki batek bereganatu du, eta zerbait askoz ere zabalgia behar du izan. Dena sartzen da barruan. Oso garrantzitsua da

gizartearen osasuna, eta orain arte taldeak ekarri izan dira, eta horrekin dena eginga zegoela uste dute. Hori ez da osasun ona. Saiatu behar dugu musika, antzerkia edo dantza jendearen ohituren baitan batzen, zerbait normala balitz bezala. Arazoa da hori ez dagoela aurrikusita inongo plangintzatan, eta ereindakoa biltzen da, ez besterik. Su festak ereiten badituzu, ez duzu deus gehiago

jasoko. Gainera, politika horrek ez dizu emaitzarik epe laburrean emango, epe luzean baizik. Yauzkarik urte asko eman ditu, eta deus jaso gabe. Desagertu egin da, eta ez da ezer gertatzen. Erriberako festetan kentzen baldin badituzu zezenak, esate baterako, iskanbila ikaragarria litzateke, hori baita orain arte eman dieten guztia. Jendearekin kultur heziketa ematen bazaio, jendeak eskatu eta aldarrikatu egingo du, eta kultura errentagarria da, azken finean. Hala ere, kulturak zergatik izan behar du beti errentagarria? Behar bat da, jatea bezala.

KRISI GALDERA.—
EKONOMIKOA
ETA KULTURA

Hain zuzen ere, murrizketak eta kultur politika zehazteko orduan, krisi ekonomikoa dagoela azpimarratzen dute agintariekin.

LAINEZ.— Guk hamaika urte eman dugu horrela, orduan, krisia ere ordukoa al da?

ESPARZA.— Gainera, dialogoak ez du zerikusirik krisiarekin. Borondatearekin dago lotuta. Nik, zinez, ulertzen dut gastua murriztu behar dela esaten dutenean, baina murrizketa denek onartutako proiektu baten barruan egin behar da, aurretik zehaztutako helburu batzuen barruan. Eta baditugu adibideak beste herrialdetan, han ez baitira aldatzen helburuak egun batetik bestera. Urteak irauten duten proiektuak dira, orekatuak, eta finkoak.

GALDERA.— Eta LOGSE horrelako proiektuak osatzeko tresna egokiena da?

LAINEZ.— Dantza munduan ez zegoen besterik orain arte, eta helburuak oso onak dira. Praktika eramateko orduan, ikusiko dugu.

PASCUAL.— Antzerkiaren munduan aurrerapauso handia da. Orain arte, ikasketak ez zeuden onartuta ofizialki, eta orain unibertsitateko ikasketen maila izan dezakete. Hori garrantzitsua da.

ESPARZA.— Hala ere, akats larria izan du legeak ikasketak unibertsitatean sartzeko aukera galdu duelako. Tituluak ditugu orain,

Hiru partaideek kultur bultzatzaileek bete beharreko eginkizuna azpimarratu zuten. Dialogo eza, harrokeria, ezjakintasuna eta antzeko loreak bota zituzten politikarien kontra.

JOXE LACALLE





baina horiek ez dute balio uni-bertsitatean. Oso garrantzitsua izan zitekeen barruan sartzea, gero homologazioen atzetik ibili behar ez izateko.

Horretaz gain, zerbait azpimarratu nahiko nuke. Kultura gizartearen errealitatearekin bat dator, eta aztertu egin beharko genuke zergatik joaten den hain jende gutxi ikuskizunak ikustera, kasu. Horretarako beste gizarte mota behar dugu, lasaiagoa, gauzak ikusteko aukera eta astiarekin. Ezin da kultura errealitateetik aldentu.

PASCUAL.— Aterabiderik gabeko biribila da hori. Gizarteak eskaintza bat baldin badauka, eta horretarako heziketa jasotzen badu, jendeak erantzuten du. Antzerki Eskolako zenbakiak oso garbiak dira. Hasieran, hama-bost-hogei ikusle zeuden emaldietan, baina azken urteotan aretoa bete-bete eginda egon ohi da.

ESPARZA.— Hala ere, zenbaki horiek iragarriak dira populazioarekin alderatuz gero. Izugarri kostatzen da jendea etxetik ateratzea. Zer gertatzen da horrekin. Zenbat jende dago etxean asperturik, telebistaren aurrean?

PASCUAL.— Hori da jendea ez dagoelako ohituta, eta eskaintzarik ez dagoelako.

ESPARZA.— Nire ustetan, zerbait gehiago bada. Badago kontsektorioan egon baina ikuskizunetara joaten ez den jendea. Gizarte honetan ez dago aukerarik, larunbat arratsaldean antzerkia edo musika emanaldi bat ikusteko. Ez dago paradarik, ez dago betarik.

GALDERA.— Ohitura sortu eta eskaintza ziurtatzeko orduan, zer ekarri dute hain eztabaidatuak diren Nafarroako Jaialdiek?

LAINEZ.— Izugarrizko beherakada izan dute azken urteotan, jota daude. Jaialdiek *boom* bat izan zuten Valentin Redinekin, eta Erriberri izugarrizko giroa zegoen, oso gauza azpimarragarria. Ondoren, herrietara zabaldu zenean, hor galdu zen, eta azkenean beherakada izugarria izan da.

PASCUAL.— Nik *boom* hori kanpoan bizi nuen, baina jende askori aditu diot lehen zeuden ikastaroak ezabatzerakoan asko galdu zela. Haiek asko bultzatzen zituzten lurralde ezberdinetako jendearen arteko harremanak, eta Nafarroako Kultur Kontseiluan berriro paratzea planteatu da behin baino gehiagotan. Orain jende asko dabil kanpoan ikastaro horiek eske.

LAINEZ.— Gainera, Erriberri zegoen giroa oso ona zen, eta orain jendea ia asperturik dago Jaialdiekin.

GALDERA.— Eta beherakada hori zerk sortu du, kalitate mailaren jaitsierak?

LAINEZ.— Inertzia bat da. Oso ongi dago herrietara ikuskizunak eramatea, baina Erriberri eutsi beharra zegoen. Han egun osoz zegoen jendea elkarturik,



Nafarroako Jaialdiek Erriberri eutsi behar izan zioten. Han egun osoz zegoen jendea elkarturik, kultur giroan, eta abangoardia zegoen. Guzti hori galdu egin da.

Jose Lainez

kultur giroaz. Gainera, ikuskizunek ere beherakada izan dute. Nere ustez, jaialdiek aniztasuna behar dute, tokian tokiko interesa

duten gauzen arabera. Eta jaialdiak nortasuna hartu behar du, abangoardia izan behar du. 1983an polemikak eta eztabaidak zeuden, eta giroa zegoen. Hori galdu egin da.

ESPARZA.— Ongi dago jaialdiak eta izatea, baina gehiegi gastatzen da ikuskizun handietan. Ez dago ekitaldietarako sare bat, oinarritzak falta da. Bestela, horrelako ekitaldiak su festak bezalakoak izaten dira.

Lehen beste gauza bat aipatu nahi nuen. Gizarte oso indibidualista osatzen ari gara, eta bideoak eta telebistak zeresan handia izan du horretan. Gure eskolak eta zentroak jendea elkartzeko erabili behar ditugu, musikaren inguruan. Hezkuntza bat izan behar du, baina baliogarria behar du izan aisirako. Horretan huts handia dugu, eta hori aldatu beharra dago.

PASCUAL.— Hori oso lotuta dago eskaintzarekin. Jendeak ez badauka zerbait ikusteko aukera, kalera ateratzen da, edatera, edo dibertitzera.

GALDERA.— Eta hori noizbait lortu al da? Kultura inoiz izan al da jendea batzeko tresna bat?

ESPARZA.— Ez dakit, baina erromantizismoaren ondotik, zentroak oso aldentuta geratu dira gizarteatik.

LAINEZ.— Arteak abangoardiaren alde egon behar du. Jendeak

jakin behar du zer egiten den, zer gauza diren.

ESPARZA.— Batzuetan, eskolatan akats larri bat izan dugu. Bultzatu dugu gustatzen zaiguna, baina ez ikasleei gustatzen zaiona. Oreka bilatu beharra dago bi gauza horien artean, bestela, ikasleek alde egiten digute.

LAINEZ.— Nere ustetan, denetarik eman behar du, gero ikasleek nahi dutena aukera dezaten. Hala ere, arazoa dago titulazioekin, arazo larria. Profesionalak ateratzen ditugu, eta hamar urte pasata, dantza egin dezakezu horrekin. Baina ez dago non dantza egin. Eman beharko zieten profesionalen titulua eta INEMeko txartela, batera.

GALDERA.— Lehengo egunean Javier Markotegi Hezkuntza eta Kultura kontseilariak goi mailako biolin jole bat ateratzeko 800 milioi pezeta gastatu beharra zegoela esan zuen. Zer deritzozue adierazpen horri?

ESPARZA.— Lehendabizi esan beharko litzaioke jaun honi zenbat kostatzen den gaizki dabilen administrazio bat. Kontu horiek beraiek egiten dituzte: hartzen dituzte titulatuak, eta kostuaren artean zatitzen dute. Hortik kontuak. Nik uste dut gastua murriztu beharra dagoela, baina ezin da gizon horrek egiten duena egin. Oso pobrea da hori.

PASCUAL.— Medikuntzarekin, adibidez, zer gertatzen da? Askok ikasten dute, baina zenbat dira mediku onak? Arazoa zera da, kultura, beti bezala, bigarren mailakotzat hartzen dela, beharrezkoa ez den zerbait, luxu bat.



Politikariei esan behar zaie ez daukela proiektuak burutzeko, bertan dabilen nahiak burutzeko baizik. Miguel Esparza

«Autonomia, zertarako?»

A.B. / IRUÑEA

ESPARZA.— Izugarrizko burokrazia sortzen ari gara. Zergatik ez dugu gure aldetik sare kultural bat sortzen, eta elkarrekin hasten lanean, muntaiak egiten, ikuskizunak prestatzen, eta abar, talde handi eta ospetsuak ekarri beharrean?

LAINEZ.— Orain arte, hori, taldeetatik atera da, atera denean. Lan pertsonala izan da, baina, azkenean erre egiten zara. Zuk ezin diezu eskatu taldeei beren lepotik ordaindu dezatela guzti hori. Ideala izango litzateke horretarako laguntzak izatea, justu-justu gastuak estaltzeko, sikiera.

ESPARZA.— Hori eskatzen dut nik, hain zuzen ere, oinarritzak lana egingo baitzen horrela. Piano jole bati ematen badizkiozu berrogeita hamar kontzertu, hamar mila pezetan truke, toki guztietara joan daiteke, eta dibulgazio lan handia egingo litzateke. Aurrerantzean, edozein motatako orkestra osa genezake hemengoekin, eta sare kultural bat osatua genuke.

LAINEZ.— Gainera, horrelako lan baten bidez, beste ilusio bat dute ikasleek, beren muntaiak prestatzen baitituzte, protagonistak dira... bestelako saltsa dago. Hori bai, administrazioaren barruan egonez gero, gorriak

ikusten ditugu guzti horretarako baimenak eta dirua lortzeko. Burokrazia izugarria dago.

ESPARZA.— Administrazioak laguntzak eman baino trabak paratzen dituen iduripena daukat. Boterea gizartera hurbiltzen denean, autonomiekin eta, helburua ez da boterea gertuago izatea, gizartetik hurbilago izatea baizik. Azkenean, lehen bezala baldin bazaude, zalantzan paratzen duzu zertarako nahi dugun autonomia guzti hau. Ni kulturako hiru zuzendariordekin egon naiz Madrilan, arazorik gabe. Zertarako nahi dugu hemen jendea, gero arazoak berdintsuak badira?

PASCUAL.— Nik elkarrizketa eskatu nion Markotegi jaunari, eta ez da lehendabizikoa, eta oraindik ez didate erantzun. Santiago Arellanori ere behin baino gehiagotan eskatu diot, eta kargua hartzean egon nintzen berarekin, ez bestetan. Ez dago hitz egiteko aukerarik.

LAINEZ.— Guri ere gauza bera gertatu zaigu. Hamar urtetan egon gara hemengoekin, eta beti erdi gezurretan. Ez Markotegi ez Felonesekin ez ginen bildu. Eta Yauzkari taldearekin, Madrilan, Javier Solana Espainiako Kultur kontseilaria zelarik, deitu genion, eta bi orduren buruan berarekin geunden hizketan.



Ez dago kultur plangintzarik, errendakoa biltzen da. Su festak ematen badi-tuzu, ez duzu deus gehiago jasoko. Maite Pascual

Gazteendako Zokoa

Urubi arrunta

Strix aluco

Gauetz aritzen da
Denetarik jaten du
Urritik aurrera kantuz



Zuhaitzen laguna

Hontzaren ondotik gauetz aritzen diren harrapakarien artean bigarrena da tamainaz urubi arrunta —90 zentimetro hegale-tik hegalerara eta 400 gramo—. Zuhaitzen artean ibiltzen da ia beti, eta primeran ezkutatzeko da bertan, lumen kolorea ere horretarako aproposa baitu. Gauetz, ordea, aisa antzeman daiteke bere kantua, indartsu eta sendoa.

Zuhaitzetan aritzen bada ere ehiza egiteko orduan, lurralde irekiak nahiago ditu, eta denetarik jaten du, zizareetatik usoetaraino. Hala ere, harrapakari guzti hauek bezala, bereziki gustukoak ditu saguak eta muxarrak. Hiri inguruetan txoriak dira bere elikaduraren oinarria.

Kantuak urriaren aurretik aditzen dira eta lurraldea markatzeko egiten dituzte. Bi eta bost arrautza bitarte erruten dituzte, zuhaitz zaharretan bereziki, baina Nafarroan frankotan aurki daitezke eliza, txabola eta ganbaretan.

Europar oso zabaldua, Nafarroan ere ugaria da urubi arrunta, hegoaldean izan ezik, bertan ez baitu aurkitzen behar adina aterbe. Pagadi eta hariztietan da bereziki ugaria.



BASAJAUN

Duela zenbait aste Mediterraneo eta bere ur epelekin gozatzeko duten herrialdeen egoera aztertzeak aukera izan genuen. Gaur Iparreko Itsasoaz ariko gara, bera baita kalte handien jasaten duen itsasoa. Hain segur, munduan dagoen itsasorik kutsatuen dugu hau.

Fosfato eta beste osagai kimiko isurkinek alga toxikoentzako bizimodu egokia sortzen dute, eta horiek kalte izugarriak eragiten dituzte ingurugiroan. Alga hauek osagai toxikoak isurtzen dute, eta ostrak eta muskuiluak kutsatzen dituzte. Hainbeste, ezen gizakumearen heriotza sor dezaketen, jatekotan.

Gai hau aparte utzita, itsas honen kutsadurak foka askoren heriotza ekarri zuen, eta hauei egindako autopsiek garbi erakutsi zuten arrazoiak: pulmonia berezi bat, Hapes birusaren parekoa. Hori aurkitu ondoren, zientzialariek foken sistema immunitario larri kaltetuta zegoeneko ondorioa atera zuten.

1987an, New Jersey eta Virginia-ko kostaldetan, berrehun bat gizurde agertu ziren hilik. Ez da harriztekoa ur hauetan bizi diren mota guztietako animalia hauek hilda ikustea. Nekez ulertu daiteke, ordea, hauek gehiago aurkitu ez izana. Seguruenik, frankotan gertatu dira horrelakoak, komunikabideek horren berri eman ez badute ere.

Eta ez da harriztekoa gehiagotan gertatu izana industriak eta gizakumeak berak itsas horretan duten eragina eta kalteak askoz eragin gogorragoak izan beharko baitzuten. Petrolio, gasa, birfindegiak, eta beste hainbeste hustiakuntzen kopuruak, herrialde frankotan, edozein izutzeko modukoak dira. Bide honetatik, hondamena segurua da.

Beltzak

me gehienak filipindarrak dira eta garbiketan egiten dute lan. Estatu espainola etorkin herri bezala onartuko balitz, hona etortzen diren kanpotarrek lanbide

Jendearen artean esames arrazistak zabaltzen hasiak dira, etorkin hauetako batzuk droga saltzen aritzen dira eta.

hobeak eskatzeko ahalmena izango lukete.

Egoera okerraren dutenak afrikarrak dira, azalaren koloreak salatzen dituelako. Dokumenta-

zioa eskatu eta ez edukitzea, hauentzat, nahikoa da kanpora, lurraldetik kanpora, botatzeko.

Jendearen artean zeresan arrazistak zabaltzen hasiak dira, hauetako batzuk drogak saltzen aritu dira eta. Hauek jasotzen duten laguntza, sei hilabetetan Gurutze Gorriak ematen dien 31.000 pezetakoa da. Pentsatzekoa da nola bizi daitekeen hiru urteetan inongo laguntzarik gabe.

Etorkinak ez dira hemen beste herri batzuetan bezala onartu. Atzerritar hauen herrietan egiten den lehengaien lapurreta, Hirugarren Munduko egoera... neurri handi batean lehen munduak sortu du.

Lapurretak, drogak saltzea eta zenbait gauza gobernuak lan hobeak eskeintzen ez dizkielako egiten dute, eta horregatik horri ekin behar diote lehendabiziz.

OIHANE SIMON

Kanpotik —batez ere Portugal eta Hirugarren Mundutik— etorkinako atzerritarrak asko dira gure herrian. Beraientzat zeregin nagusia gaztelera ikastea da, beharrezkoa baita hizkuntza menperatzea gizartearen integrazteko. Laguntza sanitarioa ere eskaintzen zaie ezer ez dutenei, eta babes politikoa dutenei Gurutze Gorriak laguntzen die.

Etorkinen arazorik garrantzitsuenak lanbidearena da, lan merkatua ez baitago ondo inorentzat eta hauei lanik gogorrenak eskaintzen dizkiete. Lan egin ahal izateko bisa ez dutenek debekaturik dute lan egitea.

Agintariak sortzen duten egoera zail honekin, atzerritarrak lanpostu txarrenak hartzera behartzen dituzte. Adibidez, neska-

Jenero Xumekoak

Arruitz aldean

Allegro) Arruitz aldean izandu dela hamar ezkutu galdu dituela. Galduzu, galdu, nik nuen pena inork jakitea nahi ez nuela, la-la-ra, la-la-ra, ra, ra, ra.

(Osmotzeko kanta. Metodo de solfeo, Miguel A. Navascues).

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

L A Z T O D A M A S A A
T E A E J R Z T A D L A
R N K M R J Z B I B L A
U R A U N E I B I J I Z
E E I G N R L A U R T P
I T K I I B S I S K A I
Z X I R R U E D R T N R
R A Z O U D I R N S I O
A R T N I K Z A R R E Z
L R I U K O D E R I T Z
E I U S U G O R R I T I
D Z H E R A B I A R A B

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Larraungo harana osatzen dituzten herrien izenak. Izen hauek ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalen irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Ditxu hori ez da zure baratzan jaioa.

Kontu hori beste batek esan dizu.

Arruazu

—Hik ba al dakik mu-
kuak bost hatzekin ateratzen?

—Ba... ez.

Besteak eskuarekin inguratzen du sudurra:

—Atera lehenbait lehen! inguratuta zaude-te!!

Bizi Bizian



Egurra, zeramika eta mota guztietako bitxikeriak eros daitezke hiru dendetan.

JOXE LACALLE

Afrika eta Hego Amerikako artisau lanak eros daitezke egunotan Iruñeko hiru dendetan: Triki-Traku, Medicus Mundik Arrieta kalean paratu duena, eta Jarautan Askapenak duena. Hirurak Gobernu Kanpoko

Erakundeek (GKE) bultzatutakoak dira, eta bertan, lan ederrak erostez gain, alde hauetarako elkartasuna ere erosten da, hortik ateratako etekinak han proiektuak bultzatzeko erabiliko baitira. Elkartasuna salgai.

Elkartasuneko dendak

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Askapena eta Mugarik Gabe taldeek duten dendak urte osoan zehar irekita izateko asmoarekin zabaldu dira, biak berri samarrak badira ere Medicus Mundi elkarteak antolatu duenak pasa den asteartean zabaldu zituen ateak, eta soilik Gabonetarako egonen da bertan. Hain zuzen ere, elkarte honen denda hau aitzindari da Nafarroan, 20 urte bete baititu dagoeneko. Paratu ere, lehendabizikoa 1972an paratu baitzuten.

Medicus Mundi elkarte Europa osoan —Alemania, Belgika, Holanda, Frantzia, Italia, Suitza, Irlanda eta Espainia— dago zabaldua, eta Espainia barruan lurraldekako federazioak daude. Hala ere, horietariko bakoitza zeharo independentea da bere funtzionamenduari dago-kionez. Horrela, Arrieta kalean dagoena Nafarroako Medicus Mundi taldeak osatu eta burututako erakusketa da, Afrika eta Hego Amerikan zehar dituen zentroetatik jasotakoa.

Bertan Bolivia, Mexiko, Guatemala, Peru, Txile, Ruanda, Gana, Tanzania eta Maliko artisauen lanak daude ikus eta erosgai, eder askoak eta merkeak denak. Izan ere, hiru dendetan era-

biltzen diren irizpideak antzekoak baitira: bitartekarien lana ezabatzea. Horrela, elkarte hauek artisauetazuzenean erosten dizkiete produktuak eta hortik ateratako etekinak leku horietarako elkarlanerako proiektuak finantzatzeko dirulaguntza moduan erabiltzen dira. Medicus Mundi bozeramaile batek azaldu duenez, bi helburu dauzka erakusketak: «Alde batetik, bertako artisauetaz, aterabide ematea eta beren lanak eza-gutaraztea eta bestaldetik, hango arazoa Hegora ere ekartzea, elkartasuna bultzatzea, finean».

Medicus Mundi erakundeak 46 proiektu burutu zituen iaz, 17 herrialdetan, 778 milioi pezetako aurrekontuarekin eta horien artean azpimarratzekoak dira Potosin (Bolivia) eta Moissailan (Txad) eraiki

nahi diren eriteteak.

Mugarik Gabe da Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) horietako beste bat, dagoeneko errotuta eta proiektu frankorekin, eta duela gutxi Emausko Trape-roak erakundeak Iruñeko Des-

calzos kalean duen Triki-Traku dendan ere bere txokoa zabaldu du Hego Amerikako artisauen lanendako.

Bertatik ateratako diruarekin Guatemalako indioek bizi duten egoerari aurrerabidea eman edota lurren bereskura-penerako beste proiekturako dirua ateratzen da. Elkartasunean inbertitzen da, azken finean. Halaber, etxean bertan dugu Hirugarren Munduari ere laguntza ematea da helburua, harreman estuak baitute erakundeek SOS Arrazakeria Iruñean duela gutxi sortu den taldearekin. Denda astearte eta larunbata bitartean dago irekita, goizez eta arratsaldean, baina hobeki arratsaldetan joaten bazarete, orduan adieraziko baitizkizute produktuen jatorria eta ezaugarria.

Askapena tal-

deak, bere aldetik, Jarauta kalean zabaldu du bere denda, gaueko 8etatik 10ak bitarte. Bertako produktuak Ekuador, El Salvador, Nikaragua, Turkia eta Kubakoak dira, eta zeramika, arropa, eta zurezko lanak dira aurkitu daitezkeenak.

Hiru taldeek ohi baino gehiago ordaintzen diete artisauetaz beren produktuak erostean, baina hiru dendetan ohi baino merkeago eros daiteke. Opariak egiteko modu txukuna.

Elkarre hauek artisauetazuzenean erosten dizkiete lanak, eta saltzean ateratzen dituzten etekinak alde hauetako elkartasunerako proiektuak laguntzeko erabiltzen dira.



Afrika eta Hego Amerikako produktuak dira batez ere. LACALLE

Lorea Elso

Gimnasta

Azaroaren 22an egin zuen Lorea Elso nafarrak Espainiako gimnasia erritmikoko taldearekin azken ariketa, Bruselan. Bertan zilarrezko domina bat eta brontzezko beste bat eskuratu zituen

taldeak, eta bertan ere izugarrizko talde baten agurra izan zen, modalitate zail honen gailurra ukitu zuen taldearena. Loreak, orain, bizitza berri bati ekin dio, 19 urterekin 'zaharregia' baita zintak eta abarrendako.

«Hutsa badut barruan»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Hamar urte hauetako balantzea, kirolari dagokionez, ezin hobea izango zaizu: zortzi domina—urrezko bat, zilarrezko hiru eta brontzezko lau—hiru Mundialetan eta sei—urrezko bi, zilarrezko bat eta brontzezko hiru—Europako bi txalpelketetan. Pertsonalki ere balantzea horren ona al da?

LOREA ELSO.— Taldearen barruan lortu dugun adiskidetasuna ez da normala izan. Lau urte hauetan gauza guztiak egin ditugu elkarrekin: bizi, entrenatu, lehiaketetan aritu. Ez zaigu bizitza osoan ahaztuko, eta horregatik balantzea ere aparta da.

EGUNKARIA.— Gainera gimnasia beste edozein kiroletan baino harreman estuagoa behar dela

ematen du.

ELSO.— Hori da, taldean gaizki moldatzen bazara, sekulan ez dituzu entrenamendu onak egingo. Taldekideak lagunak badira, ordea, arazoez hitzegin daiteke, laguntza eman, eta harremana estuagoa da.

EGUNKARIA.— Gimnasia erritmikoak eskatzen duen prestakuntza ez da bakarrik fisikoa. Aldiz, prestakuntza mentalak zeresan handia dauka.

ELSO.— Hori da... izan ere, gimnasia oso kirol mota konplexua da, eta ahalegin izugarria eskatzen du. Horretarako mentalizazio nahikoa ez baduzu, ez du merzi horrekin jarraitzeak. Ez, behintzat, goi mailan aritzeko. Horregatik, maila horretara heltzeko, prestakuntza mental horrek garrantzi handia dauka.


EGUNKARIA.— Eta gogorra iruditzen al zaizu?

ELSO.— Ez, oso gogorra ez da. Ohitzen bazara, ez. Bizitzak dituen beste gauzeekin konparaturik desberdina da, baina gauza guztiek eskatzen dute ahalegin berezi bat, eta gimnasiak ere bai.

EGUNKARIA.— Gimnasiaren irudia erregimenak eta zortzi orduko entrenamenduena da. Barrutik ikusita ez da hain gogorra izango, ezta?

ELSO.— Gogorra da pertsona normal batentzako, eta niri ere askotan gogorra egin zait. Baina hor goian egon nahi baldin baduzu, ez zaizu hain gogorra egingo. Gogoz kontra baldin bazaude, jakina, gorriak eta bi ikusiko dituzu.

EGUNKARIA.— Hori guztia bat-batean uztea, nahiz eta oraindik ohitzeko astirik ez duzun izan,



Ikasketei heltzeko gogoa dauka orain Loreak.

JOXE LACALLE

kosta egingo zaizu.

ELSO.— Bai, bizitza mota batetik beste batera pasatu naiz bat-batean, eta orain huts bat badut barruan, zerbait falta zait. Gimnasiarekin egun osoa jardutera ohituta nengoen, eta orain, hainbeste ordurekin neretzako aspertu egingen naiz. Hemendik aurrera hasiko naiz ikasten, eta beste zeregin batzuk izango ditut. Gainera, ez dut zeharo utziko gimnasia. Gimnasia joango naiz, lagunekin izango naiz...

EGUNKARIA.— Azken urteotan Espainiako talde izugarria osatu duzue, munduko hoberenetakoa. Gakoa elkartu zaretzen gimnastak izan da, edo zerbait gehiago dago atzetik?

ELSO.— Lan bera egin dugu betidanik, eta lehen ere onenen artean geunden, baina beti hirugarrenak edo. Onenak izatea zerbait psikologikoa izan da. Burua horretarako prestatzen baduzu, ez zara hirugarren postuaren bila, goiaren bila baizik.

EGUNKARIA.— Eta aldaketa psikologiko horretan nork izan du garrantzi handiena?

ELSO.— Psikologo batekin egin dugu lan urte hauetan, eta berak sartu digu buruan txapeldunak izan gintezkeela. Baina horretaz gain, lagun talde bat osatzeak ga-

rrantzi handia izan du. Gauzak horrela askoz errezagoak dira, eta talde honetan lagunminak ginen. Indibidual mailan, egun txarra izanez gero, nori kontatu zure arazoak? Taldean arazoren bat baldin baduzu, besteek laguntza ematen dizute.

EGUNKARIA.— Hala ere, indibidual sailean oraindik, errusiarrak eta bulgariarrak aurretik daude. Zer falta da maila horretara heltzeko?

ELSO.— Ez da asko falta, eta gutxi barru lortuko dute. Falta den 'gutxi' hori zer den ez dakit oso garbi, baina izenak ere badu zeresanik horretan. Betidanik ekialdeko herrialdeek ospe handiagoa izan dute, eta puntuazioan ere eragina badu horrek.

EGUNKARIA.— Eta ikusi dituzun gimnasta hauen artean, zein da gehien mirestu duzuna?

ELSO.— Oksana Kostina. Bere emaitzak baino, pertsona mirestu dut bereziki. Oso kirolari heldua da, eta besteek gimnasia uzten duten adinarekin berak jarraitu egin zuen. Errepublikan zatiketa guztia jasan zuen, eta bakarrik bi aukera zitekeenez, Olinpiadetatik kanpo utzi zuten. Mundialetan, baina, berriro irabazi zuen. Onena zela frogatzeko azken momentura arte iraun zuen.



Espainiako taldearen kapitaina izan da azken urteotan iruindarra.

JOXE LACALLE

OSKI TOR

ZVLDI ERDA

